



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO URTARRILAREN 9KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2026KO URTARRILAREN 12TIK URTARILLAREN 25ERA ARTE, DEITUTAKO GREBAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANBULANTZIAKO ERREPIDE BIDEZKO OSASUN-GARRAIOAREN SEKTOAREN, GIZARTEARI EMATEN ZAIZKION EZINBESTEKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

ELA, LSB-USO, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatueta ordezkariek greba deitu dute Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantziako errepide bidezko osasun-garraioaren sektorean, 2026ko urtarrilaren 12tik urtarrilaren 25era arte, lanaldi osoan.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedienteen jasota dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarritzko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat bera ere.

Argi dago oinarritzko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak zehaztu behar duela, eta printzipio hori gainditu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizun edo baldintza betetzen ez baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dagoela neurri egokiagorik eraginkortasun bereko helburu hori lortzeko.
3. Proporzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratortzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalteak baino.

Gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak muga bat dakar greba-eskubidea egikaritzeko; hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jokoan dauden interesen artean haztapen bat ezartzea. Hala, grebalarien eskubidea mugatu egin beharko da – amore eman beharko du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan –, baldin eta grebaren bidez beren interesak defendatzeak kalte larriagoa eragiten badio edo eragin badietzaioke funtsezko zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari, beren aldarrikapenen edo asmoen arrakastarik ezak baino. Horretarako, hizpide dugun greba-deialdiaren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Jarduera-eremuari dagokionez, lehen esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantziako errepide bidezko osasun-garraioaren sektorean deitutako greba da.

Denbora-eremuari dagokionez, greba-deialdia 2026ko urtarrilaren 12tik 25era arte ospatuko da, lanaldi-osoan. Beraz, anbulantzia-zerbitzua ondoz ondoko 14 egunetan egongo da greban.

Anbulantzia asistentzialen zerbitzua Larrialdietako Garraio Sanitarioaren Sarean (LGSS) integratzen da, eta OSAKIDETZAren Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak eskatzen dion premiazko garraio sanitarioaren eskaerari erantzuten dio, lan egiten duten lurralde-eremuan. Halaber, estalduratik kanpo dauden eremuetara joan behar dute, asistentzia-premiak direla-eta aipatutako Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak hala eskatzen duenean.

Anbulantzia ez-asistentzialen zerbitzuek (konbentzionalak eta garraio kolektibokoak) programatutako garraio sanitarioaren eskaerari erantzuten diote, baldin eta zerbitzu horiek erabiltzea gomendatzen duten arrazoi medikoak badaude. Halaber, OSAKIDETZAren zentro sanitarioetara edo Osasun Sailak kontratatutako edo hitzartutako zentroetara tratamendua jasotzera joaten diren pazienteak garraiatzen dituzte, garraio arrunta erabili ezin badute.

Beraz, deitutako grebak pertsonak arrazoi klinikoengatik bakarrik lekualdatzeari eragiten dio, eta haien egoerak galarazi egiten die garraiobide arruntetan lekualdatzea; beraz, horretarako bereziki egokitutako ibilgailuak behar dira.

Larrialdietako Garraio Sanitarioaren Sarearen (LGSS) kasuan, zerbitzuaren erabiltzaile izan daitezke EAEn bizi diren edo ez diren herritar guztiak, baldin eta osasun-arrazoiengatik, gaixotasunagatik edo istripuagatik, osasun-langile insituek artatu edo osasun-zentro batera eraman behar badituzte artatuak izateko; eta asistentziarik gabeko

anbulantzia konbentzionalen eta garraio kolektiboko anbulantzien kasuan, erabiltzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta horiek erabiltzea gomendatzen duten arrazoi medikoak dituzten paziente guztiak dira.

Argudio gutxi edo bat ere ez dago kontuan hartzeko greba-deialdiaren eraginpean dauden osasun-garraioko enpresek garatutako zerbitzuak ezinbestekoak direla herritarrentzat; izan ere, zerbitzu horiek erabat ez emateak premiazko osasun-arreta eta premia atzeraezina behar duten pertsonen eragin liezaieke, lekualdatzeko benetako ezintasuna, eta horrek lehen aipatutako osasunerako edo bizitzarako eskubidearen aurka egingo luke.

Hain zuzen ere, zerbitzu hori ez emateak, kasu honetan greba-egoera baten ondorioz, kalte larriak eragin ditzake, eta istripua izan duten eta/edo gaixorik dauden pertsonak ahalik eta azkarren lekualdatzen ez badira, pertsona horiek behar duten osasun-laguntza ez jasotzeagatik bizitza galdu ahal izango dute. Arrazoi horiengatik, sektore horretan ematen den zerbitzua funtsezkotzat hartu behar da komunitatearentzat, eta, beraz, premia aitortuko eta atzeraezineko prestaziotzat.

Azaldutako guztiagatik, horrelako grebak gutxieneko zerbitzurik ezarri gabe egiten badira, grebarekin lortu nahi den helburua baino askoz kalte handiagoak eragin ditzake, pertsonen osasuna arriskuan jar baitaiteke, eraginpeko enpresek ematen duten zerbitzua funtsezkoa eta oinarrizkoa baita. Hori dela eta, Gobernu Agintaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko: komunitate osoaren interes orokorra eta langileek greba egiteko duten eskubidea.

Ezartzen diren gutxieneko zerbitzuei dagokienez, une oro bermatzen da zerbitzu horiek ez direla alderdietako baten nahierara geratuko. Horretarako, zerbitzu horiek egiteko eraginpeko langileen ehunekoa zein den jakiterik ez dagoenez, horiek egiteko deia larrialdi-egoera baten ondorio izatea planteatzen da, koordinazio-zentro batek hala eskatuta, edo mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzea.

Ospitaleen arteko presazko garraioari eta sortzen diren presazko garraioari dagokienez, betekizun gehigarriak ezartzen dira, batetik, mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzea, eta, bestetik, ohatila erabili behar izatea, gauzatzen diren zerbitzuak benetan funtsezkoak diren zerbitzuak ematea bermatzen duten gutxienekoekin bat datozela bermatzeko.

Ilido horretan, 2023ko urriaren 6ko, 2023ko azaroaren 15eko, 2023ko abenduaren 14ko eta 2024ko urtarrilaren 3ko Aginduak eman ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantzietan gaixo dauden eta istripua izan duten pertsonen osasun-garraioaren sektorean deitutako grebetarako. Azken Aginduak, aztergai dugunaren antzeko iraupena izan zuen.

Nahiz eta orduan agindutako gutxieneko zerbitzuak ez diren deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridiko loteslea – doktrina konstituzionalak galarazitako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo

negatibo izan dituzten, deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez, agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionaletan – grebarena barne –.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorriz (artikulu horretan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko aukera greba-kasuan funtsezko zerbitzuei eusteko, eta neurri horietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta idatziz eman zaie entzunaldia eraginpeko alderdiei, gobernu-erabakiaren eraginpean egongo diren zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehen. – 2026ko urtarrilaren 12tik 25era arte, bi egunak barne, lanaldi-osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantziako errepide bidezko osasun-garraioaren sektoarean zerbitzuak ematen dituzten langileen greba-eskubidea baliatzeko, ondoren zehazten diren gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira:

1. Larrialdi-zerbitzuak, Koordinazio Zentro batek eskatzen duen osasun-garraioa presazkotzat hartuta, edo mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada, zerbitzu hori betetzeko aurreikusitako langileen % 100ek artatuko ditu.
2. Hemodialisi-tratamenduetarako, onkologikoetarako eta eguneko ospitalerako programatutako garraioa.
3. Ospitaleen arteko premiazko garraioa, baldin eta:
 - a) mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen denean.
 - b) ohatila erabili behar denean.
4. Esku-ohea behar duten ospitaleko altek eragindako garraioa, mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada.

Zerbitzu horiek zerbitzu horri estaldura emateko aurreikusitako langileen % 100ek emango ditu.

Bigarren. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkariak entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA